

IZANA eta zer ESANA

— Eugenio Arozena —

ANTZERTIKO Zuzendaria

Gure asaben, aiten, aitonetaz oroitzea izpirituarentzat osasungarria da. Gure IZATEAREN erreferentziaren zutabe nagusienetako bat delako.

Lantxo honetan, hiru hernaniar antzerkilari ospetsu aipatu nahi nituzke, hirurak zer esana izan bait zuten bakoitzari bizitzea suertatu zitzaion alorrean, garaian eta giroan.

Lantxo honen helburua, urte honetako udazkenean "HERNANIN EUSKAL ANTZERTIA" izenpean antolatutako beharko lirategiaren topaketan hitzaurre izatea da.

Aipatuko ditudan pertsonalitateak hauek dira:



Jose Olaizola Jauna.

Berak idatzitako antzerkiak hauek dira:

1908. urtean "MARKESAREN ALABA" lan aipagarria idatzi zuen, zeina urte berean Eibarraren saritua eta Donostiako Antzoki Zaharrean antzestua izan zen. 1983. urtean ANTZERTI-k argitaratzen du.

JOSE OLAIZOLA.

1833. urtean Hernanin jaioa eta 1969. urtean Donostian hila. Musikari, olerkari eta teatrogile ospetsua izana. Urte luzez, Donostiako Sta. Maria eleizako organojole izan zen.

1909. urtean Hernanin Euskal Jaiak zirela eta "ZORIGAIZTOKO EZTAYAK" antzerki lanak aipamena izan zuen. Ospakizun hauetan Udalteko aretoan "INGELESAREN EURITAKOA" antzerkia antzestu zen.

1912. urtean A. Barriolaren "Zori gaiztoko eguna" zarzuelari Olaizola jaunak musika egokitu zion eta urte honetan Donostiako Antzoki Zaharrean jokatu zen.

1916. urtean "OLESKARI ZAARRA" idilioa idatzi zuen, Donostiako Udalak antolatutako lehiaketan bigarren saria lortu zuelarik.

1918. urtean goian aipatutako idilioa Oñatin antzestu zen, Eusko Ikaskuntzaren lehen kongresua zela eta.

1919. urtean "¿BIGAR ARTE? !JA, JAI!" komedia idatzi zuen eta Donostiako Udalak antolatutako lehiaketan saritua izan zen. Urte berean Antzoki Zaharrean antzestu zen.

1922. urtean "¡GORA, GORA ANTZIÑAKO LEGIAK!" komediak "Guipuzkoarra" aldizkariaren saria irabazi zuen eta urte berean "Kaiku" aldizkariak argitaratzen du.

... ez dakidan urtean "BASO JAUNA" baka-
rriketa idazten du.

Jose Olaizolak hamar urte zituelarik, Hernanin beste jaiotza askoren artean gero antzerkigile eta eleizgizon ospetsu izango dena munduraten da. **JOSE GARCIA GOLDERAZ** 1983-X-27an Hernanin jaio eta 1973. urtean Valladoliden hila. Gazte zela-
rik Valladolideko Eliz



Garcia Golderaz Artzapezpikua.

Nagusiko Irakurle kalonjetza lortu zuen. Madri- den Rotako idazkari. Ondoren, Madrid bertako Eliz-Nagusiko kalonje-buru, 1944. urtean Orihuelako gotzai izendatua izan zen eta bederatzi urte geroago Valladolideko gotzaitza eman zioten.

Euskaraz idatzitako lanik aipagarrienak hauek dira:

1913. urtean Tolosan ospatu ziren Euskal Jaie- tan **“ZINTZOTASUNA”** antzerki lana, 50 pe- zetakin saritua izan zen.

1914. urtean Hondarribiako Euskal Jaie- tan **“ITXASORA”** deritzan olerkiarekin saritua izan zen.

1915. urtean Bilboko Euskaltzale Bazkunak eratu zuen antzerki lehiaketan saritua izan zen eta Euzko Deya etxeak 1916. urtean argitaratu zuen.

Ez duk hamairu baduk hamairu, Jose Garciaren jaiotzaren 13. urteurre- nean **PEDRO SARRIEGI LARBURU** datorkigu. 1906. urtean Hernanin jaiotzen da eta 1968. ur- tean Hernanin hiltzen da. Ez noa aipatzera nolakoa zen gizon hau kantuan, dantzan eta teatrogintzan, nere belaunaldiko herna- niarrek ondo ezagutzen bait zuten; idatzitako an- tzerkiak aipatuko ditut soilik.

1961. urtean **“AMA IZATEN LANAK DIRE- LA ORRATIK”** komedia idazten du.

1964. urtean **“ETXERAKO NORI”** Donos- tiako JARRAI antzerki taldeak antzestuaz eza- gutzera ematen du.

1965. urtean **“BIOTZAREN NEURRIA”** ko- media idazten du.

1966. urtean **“JOKALDI TXAR BAT”** an- tzerki lanarekin **“AGORA”** saria eskuratu zuen.

“ZAURITUTAKO LOREA”, “GAZTEAK” eta **“JOXE MARIEN URRE PUXKAK”** an- tzerkiak ez dakit zein urtetan idatzi zituen.

“AMA IZATEN LANAK DIRA ORRATIK”, antzerki honetan Sarriegik J. Karraskedoren laguntza izan zuen eta antzerki obra honen es- keintza Sarriegi jaunak honela egiten du:

“Ni Sarriegi’tar Kepa, nere adiskide
Eduardo P. Eizaguirre-ri
Nere lan txiki au zuri eskeintzen
dizut, gure adiskidetasuna gogoangarri
edeki dezagun.
Baita ere, gure sasoian antzeslari
iayoenetakoa ziñalako.
Artu ba besarkada bero bat zure
Lagun Kepa-ren gandik”

Agur Edorta



Pello Sarriegi (ezkerretik bigarrena), bere familikoekin.

		<u>JAIOTZA</u>	<u>HERIOTZA</u>
1993 urtea	* OLAIZOLA	110 urte	24 urte
	* GARCIA	100 urte	20 urte
	* SARRIEGI	87 urte	25 urte

Sozio-ekonomi aldetik hain beltza datorkigun 1993. urte hau alaitzeko, eta itxaropena zapuztu ez dadin gizon hauei aipamen bat eskeintzea egokia eta bidezkoa iruditzen zait. ○